

## URRELUR MINERALOGIA ETA PALEONTOLOGIA ASTEKO II. ARGAZKI LEHIAKETA - OINARRIAK

**PARTAIDEAK:** Nahi duten pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute.  
Kategoriak: haurrak, 16 urte arte, eta helduak.

**GAIA:** mineralak eta fosilak, 2018ko azaroaren 2,3 eta 4an Urrelur astearen programazio barruan.

**AURKEZPENA:** azaroaren 7ko arratsaldeko 2ak arte.

**OBRAK LEHIAKETARA AURKEZTEA:** Pertsona bakoitzak gehienez 3 argazki aurkeztu ahal izango du. Lanak JPG formatuan bidaliko dira, [argazkielkarrea@gmail.com](mailto:argazkielkarrea@gmail.com) helbidera. Lanak bidaltzeko mezu elektronikoan, egilearen datuak adieraziko dira, hala nola izen-abizenak, adina, herria, telefono-zenbakia.

- Mezu elektronikoa jaso izanaren baieztapena bidaliko da, hura jaso dela frogatzearen.
- Argazkiak edita daitezke.
- Artxiboa BEREIZMEN TXIKIAN bidali beharko da (alde handienak 1024 pixel edukiko ditu eta formatu bertikala badu 768 pixel).
- Epaimahaiaren erabakia jakin ondoren, eta argazkiak inprimatzeko asmoarekin, artxibo digitala BEREIZMEN HANDIAN aurkezteko eskatuko die antolakuntzak irabazleei.

**EPAIMAHAIA:** argazkigintzan ospe handiko hiru pertsona izango dira.

**EPAIMAHAIAREN IRIZPIDEAK:** Argazki onena baloratuko da, eta egile berak ezingo du saria jaso behin baino gehiagotan.

**ERABAKIA ETA SARI BANAKETA:** Erabakia hartzeko saioa eta sari banaketa jendaurrean egingo dira. Erabakia hartzeko saioa 2018ko azaroaren 16an izango da, arratsaldeko 6:30etan, Urretxuko Kultur Etxean. Sari banaketaren ekitaldia, berriz, 2018ko azaroaren 23an, Urretxuko Udaletxean, arratsaldeko 7etan.

**SARIAK:** Honako sari hauek izango dira:

- |                                       |                      |
|---------------------------------------|----------------------|
| - Argazki onenari:                    | 150 €                |
| - Bigarren argazki onenari:           | 100 €                |
| - Herriko argazki onenari:            | 90 €                 |
| - Gaztetxoek argazki onenari:         | 50 € eta mineral bat |
| - Gaztetxoek bigarren argazki onenari | 30 € eta mineral bat |

Bide batez, aurkeztutako argazkiak 2019ko Urrelur asteke egitarauan erabili ahal izango dira.

Argazki lehiaketan parte hartzen duenak goitik behera onartzen ditu oinarri hauek. Oinarriotan jaso gabeko gorabehera oro antolatzaileek erabakiko dute. Sariaren bat irabazitako lanak antolatzaileen esku geratuko dira. Lan guztien erabilera eta erreproduzio eskubidea beretzat erreserbatuko dute antolatzaileek, lanen jatorria aipatuz beti ere.

**ARGIBIDEREN BAT NAHI IZANEZ GERO, EDO INFORMAZIO ZABALAGOA, URRETXUKO KULTUR ETXEAREKIN JARRI BEHAR DA HARREMANETAN. Tel.: 943 03 80 88**

